

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

INGURUGIRO GAJETARAKO IKASTEGIA

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluak 2021eko urriaren 29an onartu zituen 2021-2022 ikasturtean bitartean aldirako Gasteizko ikastetxeetan eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko diru-laguntzaren deialdiaren eta oinarrien laburpena

BDNS(Identif.): 595975

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/595975>).

Lehena. Onuradunak

Gasteizko udalerrian kokatutako ikastetxeek edo ikasleen familien elkarteek edota udalerrian kokatuta ez izanez gero, gutxienez, ikasleen ehuneko 60 udalerrian erroldatua egotea.

Bigarrena. Helburua

Gasteizko ikastetxeei edo ikasleen familien elkartei laguntza ekonomikoa ematea da diru-laguntza deialdi honen xedea; hain zuzen ere, bertan, 2021-2022 ikasturtean, eskola-baratzeen alorreko jarduerak egiteko erraztasunak emate aldera.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren Kontseiluak 2021eko urriaren 29an onartu ditu eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 12.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Ikastetxeek eskaerak aurkeztu beharko dituzte Udal Erregistroan edo Udal Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan 2022ko uztailaren 6a baino lehen.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 3a

Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren lehendakaria
ANA OREGI BASTARRIKA